

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 17/2018 Foru Dekretua, apirilaren 13koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta interes jakin batzuk ordezkatzan dituzten taldeek parte hartzeko eta lankide izateko erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua

Egungo egoeran, demokrazian sakontzea mundu zabalean dauden desafio nagusienetako bat da, hainbat gobernu erakundek eta gizarteak agerian ipini dutena. Horregatik, Arabako Foru Aldundia, herritarren parte-hartzea gizartearen garrantzi handieneko eskakizun bilakatu dela jabeturik, prozesu honetan murgilduta dago, gobernu eredu berri bat ezartzeko eta finkatzeko xedearekin. Prozesu honetan, zenbait helbururi lehentasuna eman zaie: gobernu ona, gardentasuna, politika publikoen ebaluazioa, eta herritarren parte-hartzea Arabako Lurralde Historikoko arazo publikoetan.

Herritarrek bizitza politikoan parte hartzea errazteko eginbeharrarekiko aginte publikoen konpromisoa, parte-hartze hori benetan gauzatzeko bide materialak ezartzera eta informazioa, ezaguerak eta beharrezko motibazioa ematera bideratu behar da. Ildo horretan, 2017ko otsailaren 8an Arabako Batzar Nagusiek 1/2017 Foru Araua onartu zuten, gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onarena. Xedapen horrek, eskuarki onartutako gobernantza printzipioak ezartzeko esparru orokorra finkatzeaz gainera, zenbait parte-hartze figura bereizten ditu, zeinek herritarrei bide eman behar baitiete beren ahalmenak eta gaitasunak garatzeko, bere burua adierazteko, sortzeko, antolatzeko eta beren bizitzan funtsezkoa eta garrantzizkoa den guztiari buruzko prozesuetan esku hartzeko; hau da, herritarrek benetan eta egiatan parte hartzeko tresnak.

Tresna horiek direla eta, 1/2017 Foru Arau horren 44. artikuluan Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzan dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroa sortzen da, parte hartzeko lehentasunezko bide bat eta alerta goiztiarrerako eskubi-dea ezartzeko herritarrentzat eta interesa duten taldeentzat.

Hala ere, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren foru arau horrek, herritarrek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroa sortu ez ezik, horren alderdi batzuk finkatzen ditu, hala nola parte-hartze prozesuak garaiz eta zehazki komunikatzea, erregistroan izena emateak berekin dakarrena, geroagoko une baterako utzirik izena emateko baldintzak, idazpenen edukia, sartzeko erak eta koordinazioa zehaztea, Foru Gobernu Kontseiluak egiten duen erregelamendu garapenaren bidez egingo baita.

Hortaz, sorkuntza 1/2017 Foru Arauan ezarrita dagoen arren, foru dekretu honen bidez sendotzen da eta hartzen du benetako izatea Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzan dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroak. Dekretua hiru kapitulutan egituratzen da, hamahiru artikulutan, xedapen gehigarri batean, azken xedapen batean eta eranskin batean banaturik. Azken horrek "Herritarren Parte-hartzea" datu pertsonalen fitxategi berriaren ezaugarriak jasotzen ditu.

Dekretu hau tramitatzeko, bete egin dira araupetze onaren printzipioak, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenean aurreikusten diren eta maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren I. eranskineko 3. artikuluan jasotzen diren horiek. Horrela, azalduko aurrekarietan nahiko frogatu da parte hartzeko eta laguntzeko erregistroa

arautzeko beharra. Gainera, araugintzako jardun proportzionala da, zeren eta nahi den helburua –hau da, erregistro horren antolaketa eta funtzionamendua arautzea– erdiesteko ezinbesteko gutxienez mugatzen baita.

Segurtasun juridikoaren printzipioa ere bermatzen da, zeren eta aski arrazoitzen baita nola ordenamendu juridikoan sartzea hala hura ematen duen organoaren gaikuntza.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; nola antolamenduari baino ez dagokion, posible da ez izapidetzea jendaurrean jartzeko izapidea; edonola ere, ALHAOn argitaratzeko aginduko da, hura onartu bezain laster. Hori guztia, ahaztu gabe dekretu honetan arautzen den erregistroa giltzarri gisa eratzen dela herritarren parte-hartzerako aurrerabidean, foru gobernuaren jardunaren gardentasuna eta informazioa bermatuz maila anitzeko gobernantza esparru batean.

Efizientzia printzipioari gagozkiola, proposatutako arautze horrek, duen izaera dela-eta, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarririk ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearekiko adostasunez, diputatu nagusiaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzea.

2. artikulua. Erregistroaren izaera eta helburua

1. Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroa titulartasun publikoko erregistro bat da, herritarren parte-hartzearen arloko eskumena duen sailari eratzikia.

2. Erregistro horrek balioko du otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onarenak, jasotzen dituen parte-hartze prozesuetatik edozeinen inguruko informazioa jaso nahi duten lurralde historikoko pertsona fisiko, entitate, elkarte, gizarte antolakunde, talde, plataforma, foro, herritar sare eta askotariko interes taldeen konstantzia izateko.

3. artikulua. Erregistroaren kudeaketa informatikoa

Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroaren kudeaketa, helburu horrekin garatutako aplikazio informatiko baten bidez egingo da.

4. artikulua. Datu pertsonalen babesa

1. Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroan jasotako datuen lanketa automatizatua datu pertsonalak babesteko araubidearen pean egongo da, bat etorri abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, datu pertsonalak babesteari buruzkoan, ezarritakoarekin.

2. Foru dekretu honen bidez, eta aipatutako 15/1999 Lege Organikoaren ondorioetarako, onartzen da 1.68 "Herritarren parte-hartzea" izeneko fitxategia sortzea, zeinak xedapen honen I.

eranskinean zehazten den informazio pertsonal guztia edukiko baitu erregistratutako pertsona fisikoez.

3. "Herritarren parte-hartzea" izeneko fitxategian erregistratutako datu pertsonalak, beraiek eskuratu eta erregistratzearen helburua betetzeko beharrezko denboraz mantenduko dira.

Horiek biltegitratzen diren erak, eragindako pertsoneri bide eman behar die datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko, bat etorritik abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari buruzkoak, ezarritakoarekin.

4. Dekretu honen 1. artikulua bidez sortutako foru aldundi honen titulartasuneko fitxategian bildutako datu pertsonalak berariaz ezarritako helburuetarako soilik erabiliko dira, eta horretarako behar bezala baimendutako langileek baino ez.

5. Interesdunak, datu pertsonalen titularrak, datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta haien aurka egiteko eskubideez baliatu ahal izango dira arlo honetan indarrean dagoen legerian xedatutako eran, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko Herritarren Atenditzeko Bulegora jota (Probintzia plaza z/g, Gasteiz).

II. KAPITULUA

Erregistroaren antolaketa

5. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroaren atalak

1. Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroa bi ataletan banatzen da:

a) Lehen atala, zeinean izena emango baitute Arabako Lurralde Historikoko askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek, hau da:

- Entitate kolektiboak: pertsona juridikoak, irabazteko xederik gabekoak, haien era juridikoa eta izaera edozein direla ere, interes kolektiboak edo euren kideen interesak defendatzea xede dutenak, izaera orokorrekoak nahiz sektorialekoak, euren jarduerak Arabako Lurralde Historikoan egiten dituztenak.

- Interes taldeak: antolakundeak eta pertsonak, edozein izanda ere haien estatutu juridikoa, modu profesionalean aritzen direnak, euren jardueraren zati gisa, zuzenean edo zeharka eragiten politikak edo xedapenak prestatzeko prozesuetan edo horien aplikazioan eta foru sektore publikoko erabakiak hartzeko prozesuetan, eta euren jarduerak Arabako Lurralde Historikoan egiten dituztenak.

- Hausnarketa taldeak: erakunde akademikoak eta ikerkuntzakoak, euren jarduerak Arabako Lurralde Historikoan egiten dituztenak.

b) Bigarren atala, zeinean izena emango baitute asmo hori bera duten pertsona fisiko, entitate, elkarte, gizarte antolakunde, talde, plataforma, foro eta herritar sareek.

2. Atal bakoitzean, inskripzio idazpenak egingo dira dekretu honen 7. artikuluan aipatutako datuekin eta, hala dagokionean, datuen gorabehera, aldaketa eta ezeztatzeekin.

6. artikulua. Informazio eta parte-hartze eremuak

Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroa, herritarren parte-hartzearen arloko eskumena duen sailaren buruak erabakitzen dituen gaikako eremuetan egituratuko da.

III. KAPITULUA

Erregistroaren funtzionamendua

7. artikulua. Jaso beharreko datuak

1. Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroan, ondoren adierazten diren datuak jasoko dira, pertsona fisikoen kasuan:

- a) izena eta abizenak,
- b) sexua, estatistika ondorioetarako,
- c) helbidea,
- d) posta elektronikoko helbidea, edozein parte-hartze prozesuren berri emateko garaiz eta zehatz,
- e) zein gairen inguruan eskatzen den garaiz eta zehatz berri emate hori.

2. Arabako Lurralde Historikoko entitate, elkarte, gizarte antolakunde, talde, plataforma, foro, herritar sare eta askotariko interes taldeen kasuan, ondoko datu hauek jasoko ditu herritarrek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroak:

- a) entitatearen izena eta haren izaera juridikoa,
- b) helbidea,
- c) posta elektronikoko helbidea, edozein parte-hartze prozesuren berri emateko garaiz eta zehatz,
- d) zein gairen inguruan eskatzen den garaiz eta zehatz berri emate hori.

8. artikulua. Izena emateko eskaera

Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroko inskripzioa, betiere, interesdunak hala eskatuta egingo da, horretarako onartzen den arauzko ereduan, eta ondoko prozedura hauetako edozeinetatik:

- a) bide elektronikoz, Gobernu Irekiaren Atarian eskura jarriko den baliabide egokia dela medio, edo
- b) Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrera etorri eta bertan idazkia aurkeztuz, edo
- c) urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidea-renak, 16.4 artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan.

9. artikulua. Inskripzioa egiaztatzea eta zuzentzea

1. Izena emateko eskaera hartuta, Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta interes jakin batzuk ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroa kudeatzeko eskumena duen organoak eskaera aztertuko du, eta egiaztatuko du ea jasota dauden dekretu honen 7. artikuluko datu guztiak.

2. Eskaera aztertzean egiaztatzen bada jaso beharreko datu horiek ez dituela, interesdunari aginduko zaio 10 egun balioduneko epean, agindu hori bidali eta hurrengo egunetik aurrera, osatu ditzala bere eskabidean aurkeztu beharko ziren datuak, adieraziz ezen, horrela egiten ez badu, izena emateko eskaerari uko egindakotzat emango dela.

10. artikulua. Izena emateko eskaera ebaztea

1. Foru erregistroan izena emateko eskaera ebaztea herritarren parte-hartzearen arloko eskumena duen foru zuzendaritzan diharduenaren ardura izango da, eta gehienez ere bi hilabeteko epean jakinarazi beharko da, eskaera behar den eran aurkeztu denetik.

2. Epe horretan ebazpen espresuaren jakinarazpenik izan ezean, eta datuak edo agiriak zuzentzeko edo argitzeko agindu batengatik epea eteten ez bada, izena emateko eskaera onartutzat emango da.

11. artikulua. Izena ematearen ondorioak

1. Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroan izena emateak berekin dakar garaiz eta zehatz eman behar izatea otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onarenak, jasotzen dituen parte-hartze prozesuen edozeinen urratsen berri, bertan jasotako eskubideak osotero egikaritzeko. Horrek ez du esan nahi interesak ordezkatzeko dituzten talde edo entitate inskribatu gabeak baztertuko direnik.

2. Prozesu horietan parte hartzeak ez du ordeztzen entzunaldi publikoaren izapidea, dagokion araudiaren arabera izapide hori aginduzkoa den eta, araudi beraren arabera, pertsona edo talde ordezkatzailerik interesdunak diren kasuetan.

3. Herritarrek parte hartzeko ekimenak sustatzen dituzten sailek, beraiek sustatzen dituzten parte-hartze prozesuen hasiera, berritasunak eta bukaera jakinarazi beharko dizkiote erregistroa kudeatzeko eskumena duen organoari.

Izena emandako pertsona eta entitateek garaiz eta zehatz jakinaraztea eskatu duten gaiak kontuan edukiz, foru erregistroa kudeatzeko eskumena duen organoak bidaliko die herritarrek parte hartzeko ekimenak sustatzen dituzten sailetatik jasotzen duen informazio hori guztia.

12. artikulua. Inskripzioko datuak aldatzea

Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroan izena emandako pertsona fisiko, entitate, elkarte, gizarte antolakunde, talde, plataforma, foro, herritar sare eta interes taldeek, erregistroan jasotako beren datuen aldaketa eska dezakete, erregistro hori kudeatzeko eskumena duen organoari egindako eskaera bidez.

13. artikulua. Erregistrotik ezabatzea

1. Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroan izena emandako pertsona edo entitate orok bere borondatez erregistrotik ezabatzeko eska dezake, erregistro hori kudeatzeko eskumena duen organoari egindako eskaera egokiaren bidez.

2. Erregistrotik ezabatzeko eskatuta, eskatutakoa egingo du erregistroa kudeatzeko eskumena duen organoak, eta ezeztatuko ditu Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroko inskripzioa eta bertan jasotako datuak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Arabako Foru Aldundiko sistema eragileak.

Foru Dekretu honetan xedatutakoa Arabako Foru Aldundiaren informatika eta diru baliabide erabilgarriek baldintzaturik eta horiekin loturik egongo da. Betiere, Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroa gehienez ere urtebeteko epean hasiko da funtzionatzen, dekretu hau indarrean jartzen denetik.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Herritarren parte-hartzearen arloko eskumena duen sailaren buruak, dekretu honetako 6. artikuluan aurreikusten denaren arabera, erregistroaren informazio eta parte-hartze eremuak zehazten ez dituen bitartean, erregistro hori gaikako eremu hauetan egituratuko da:

- a) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza,
- b) Artisautza,
- c) Kultura,
- d) Kirola,
- e) Ekonomia garapena,
- f) Lurralde oreka,
- g) Finantzak eta aurrekontuak,
- h) Turismoa eta merkataritza sustatzea,
- i) Enpleguaren sustapena,
- j) Euskara,
- k) Ogasuna,
- l) Berdintasuna,
- m) Kulturartekotasuna eta lankidetzak,
- n) Gazteria,
- o) Ingurumena,
- p) Herri lanak,
- q) Herritarren parte-hartzea,
- r) Aurrekontuak,
- s) Babes zibila eta suteen prebentzioa eta itzaltzea,
- t) Gizarte zerbitzuak,
- u) Garraioa,
- v) Hirigintza.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria

NEKANE ZEBERIO GANZARAIN

I. ERANSKINA

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN TITULARTASUN EKO 1.68 "HERRITARREN PARTE-HARTZEA" FITXATEGI BERRIAREN EZAUGARRIAK, OTSAILAREN 25EKO 2/2004 LEGEAREN ONDORIOETARAKO (DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO LEGEA)

a) Aurreikusitako helburua eta erabilerak: Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onarenak, jasotzen dituen parte-hartze prozesuak izapidetzea.

b) Zein pertsona edo giza talderen datuak bilduko diren: foru sektore publikoak sustatutako edozein parte-hartze prozesuren informazioa nahi duten edo hartan parte hartzen duten pertsona fisikoak edo Arabako Lurralde Historikoko askotariko interes taldeen, entitateen, elkar-teen, gizarte antolakundeen, taldeen, plataformen, foroen edo herritar sareen ordezkariak.

c) Datuak biltzeko prozedura: helburu horretarako berariaz sortutako arauzko ereduaren bidez, datu pertsonalak zuzenean pertsona fisikoak ematen ditu, edo Arabako Lurralde Historikoan askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeen, entitateen, elkar-teen, gizarte antolakundeen, taldeen, plataformen, foroen edo herritar sareen ordezkariak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura: pertsona fisikoaren identifikazio datuak (izena, abizenak), helbidea eta posta elektronikoko helbidea.

e) Lagapenak: 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera laga daitezke datuak.

f) Fitxategiaren arduraduna: Arabako Foru Aldundia, eta fitxategia kudeatu eta zaintzea Diputatu Nagusiaren Kabineteari dagokio.

g) Segurtasun neurriak: oinarrizko mailako segurtasun neurriak hartuko dira.